



## Ogasun Ministerioa

*Ebazpena, Ekonomia eta Ogasuneko Gipuzkoako Ordezkaritzarena, Estatuko Administrazio Orokorraren titulartasuneko abintestatotik datorren higiezin baten goranzko lau enkanterako deia egiten duena, eskaintzak gutun-azal itxian aurkezteko prozeduraren bidez.*

Ekonomia eta Ogasuneko Gipuzkoako Ordezkararen erabakiz, lote bakarreko ondoz ondoko lau enkanterako deialdia egitea onartu da, Estatuko Administrazio Orokorraren titulartasuneko higiezinaren ehuneko berrogeita hamarreko (% 50) gutun-azal itxiko eskaintzen aurkezpenaren bidez, zeina jarraian deskribatzen den:

Ondasunaren deskribapena:

HIRIKOA: Pasai San Pedroko udalerriko kale bakarrean, gaur egun San Pedro kalea, 10 zenbakia duen etxearen hiru zenbakiko etxebizitza, ezkerreko behegaineko solairua. Hirurogeita hamabi metro eta berrogei dezimetro karratuko azalera du. Lau logela, bainugela eta sukaldea ditu. Mugak: iparraldean, San Pedro kalea; hegoaldean, eskuineko behegaina; ekialdean, hamabigarren kaleko mehelina; eta mendebaldean, zortzigarren kaleko mehelina. Higiezinaren balio osoaren ehuneko zazpiko partaidetza-kuota ematen zaio.

Erregistroko inskripzioa:

Donostiako 5 zenbakiko Jabetza Erregistroa. 2592 Liburukia, 388 Liburua, 131 Orria, Pasaiako 1191 Finka, IDUFIR 20011000219204 zenbakia.

Katastroko erreferentzia: 8797250. Finka: 83841 G. Azalera: 72 m2

Tasazio-balioa: 77.682,00 euro, etxebizitzaren % 50ari dagokiona.

Lizitazio mota eta bermea:

Enkantea	Lehena	Bigarrena	Hirugarrena	Laugarrena
Lizitazio mota	77.682,00€	66.029,70€	56.125,25€	47.706,45€
% 5eko bermea	3.884,00€	3.301,49€	2.806,26	2.385,32€

Eskaintzak aurkezteko eguna, ordua, tokia eta epea:

Eskaintzak enkantearen deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik 2024ko irailaren 20ra arte aurkeztu ahal izango dira, egun hori barne. Gutun-azalak 2024ko irailaren 26an irekiko dira jendaurrean, 10:00etan, Gipuzkoako Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzaren Ekitaldi-Aretoa, Donostiako Okendo kaleko 20. zenbakiko lehenengo solairuan dagoena.



VICEPRESIDENCIA  
PRIMERA DEL GOBIERNO

MINISTERIO  
DE HACIENDA

GIPUZKOAKO EKONOMIA ETA  
OGASUN ORDEZKARITZA

DELEGACIÓN DE ECONOMIA Y  
HACIENDA EN GIPUZKOA

Baldintza zehatzen agiria:

Enkantean parte hartu nahi duten interesdunek baldintza-agirian zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Informazioa Ogasun Ministerioaren webgunean (<http://www.hacienda.gob.es>) edo, hala badagokio, Ekonomia eta Ogasun Sailaren Gipuzkoako Ordezkaritzako Estatuko Ondarearen Atalean eskura daiteke, aurrez aurre edo posta elektronikoaren bidez ([DEHGipuzkoaPatrimonio@igae.hacienda.gob.es](mailto:DEHGipuzkoaPatrimonio@igae.hacienda.gob.es)).

Donostian, 2024ko ekainaren 18an

EKONOMIA ETA OGASUNEKO GIPUZKOAKO ORDEZKARIA

Sinadura elektronikoa: Francisco Javier Herrero Aparicio